



OÑATI
dabilen herria



OÑATIKO UDALA
IDAZKARITZA

DATA 2026 MAR 02

ALKATE DEKRETUEN LIBURUA
ZKIA 399

ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Kale-garbiketarako peoi gidaria (E) lanpostua LANBIDE bitartez aldi baterako betetzeko (2026ALKO0004).

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

"Udaleko Giza Baliabide eta Antolaketako teknikari naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente zk.: 2026ALKO0004

Espedientearen helbidea: OÑATI.

Gaia: Kale-garbiketarako peoi gidaria (E) lanpostua LANBIDE bitartez aldi baterako betetzeko BEHIN-BEHINEKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea

Interesduna: Oñatiko Udala

Gertakariak:

Oñatiko Udaleko 2026ko otsailaren 20ko Alkate Probidentzia bitartez Kale-garbiketarako peoi gidaria lanpostua aldi baterako betetzeko oinarriak argitaratu ziren LANBIDEn.

Izen-emate epea amaituta, behin-behineko onartu eta baztertuen eta merezimenduen zerrendak argitaratu behar dira.

DEIALDIA: KALE-GARBIKETARAKO PEOI GIDARIA (2026ALKO0004)

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Onartuen zerrenda:

<i>Izen-abizenak</i> <i>Nombres y apellidos</i>
ARITZ URRESTI ARRIZABALAGA
IÑAKI AIZPURUA AIZPURUA
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN

Ez da bazterturik egon.

DEIALDIA: KALE-GARBIKETARAKO PEOI GIDARIA (2026ALKO0004)

Merezimenduen behin-behineko zerrenda





OÑATI
dabilen herria

Behin-behineko merezimenduen balorazioa, hurrengoa da:

	Ikastaroak (gehienez 10 puntu)	Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu)	GUZTIRA
ARITZ URRESTI ARRIZABALAGA	3,3	2,9	6,2
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN	0	0	0
IÑAKI AIZPURUA AIZPURUA	0	0	0

Proposamena: kale-garbiketarako peoi gidaria lanpostua aldi baterako betetzeko behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea eta 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita."

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkate naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, erabaki dut:

Lehenengoa.- Kale-garbiketarako peoi gidaritarako aldi baterako lanpostua betetzeko behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea.

Bigarrena: 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Erabakia Oñatiko Udalaren webgunean argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko otsailaren 27a


OÑATIKO UDALA
Alkatea

Izaro Elorza Arregui